



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

2021EKO EKAINAREN 17KO AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA ESTATUKO, AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUAN 2021EKO EKAINAREN 18RAKO DEITUTAKO GREBAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN GIZARTEARI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA.

SINDIKATUEN ARTEKO KONFEDERAZIOA, CO.BAS, SOLIDARIDAD OBRERA eta SAS sindikatuek greba deitu dute 2021eko ekainaren 18rako. Greba deialdiak Estatuko Administrazio Orokorreko, Autonomia-Erkidegoetako Administrazioetako eta Ceuta eta Melilla hirietako, Toki-erakundeetako Administrazioetako, Erakunde Publikoetako, Agentzietako eta nortasun propioa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeak, edozein Administrazio publikori lotutakoak edo haren mendekoak, eta Unibertsitate Publikoko langile, funtzionario, estatutupeko eta lan-kontratadun langile guztiei eragingo die. Greba, egun horretako 00:00etan hasi eta 24:00etan amaituko da.

Grebaren helburua “estatuko araudi berri bat ezartzea da, tokiko, autonomia-erkidegoko eta estatuko administrazioan gehiegikeria-egoeran dauden aldi baterako langile guztien enplegua sendotzea bermatzeko, bai eta zuhurtziazko Administrazioetik herritarrei ematen zaizkien zerbitzu guztiak indartzeko ere”.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Horrela, beraz, Konstituzioak greba-eskubideari ematen dion babesak zerrendatzen eta babesten dituen eskubiderik garrantzitsuenei (15. eta 43. artikuluan aipatzen dituen bizitzarako, osotasun fisikorako eta osasunerako eskubideei, adibidez) ematen dienaren berdina da. Eskubide horiek guztiak, greba-eskubidearekin batera, Konstituzioaren babesik handiena jasotzen dute.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarritzko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo “egokitasun-judizioa”; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo “premia-judizioa”; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, “proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta”. Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, besteak beste, honako epai hauen bitartez: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera eta, horretarako, nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzailari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori dela eta, greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenaren ezaugarriak hartu beharko dira kontuan; zehazki, grebaren denbora-eremua, 24 orduko lanaldia, eta jarduera-eremua, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden administrazio publiko guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra eta haren erakunde autonomoak, foru-, toki- eta estatu-administrazioak, erakunde publiko guztiak, partzuergoen mendeko enpresak, etab.

Adierazitakoa dela-eta, Konstituzioaren 15 eta 43.1, 19, 20, 27, 35 eta 24. artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala, osasuna, hezkuntza, lurraldeko joan-etorri askea, lana, informazioa eta benetako babes judizialerako eskubidea babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, erkidegoan ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko, ondoren adierazten diren eta agindu honetan zehaztuta geratzen diren sektoreetan.

Ezin da ahaztu deitutako greba COVID-19k eragindako osasun-krisiaren eta osasun-eta gobernu agintariak hartutako neurri eta gomendioen barruan kokatzen dela. Hala, kontuan hartu behar da 23/2021 Dekretua, maiatzaren 7koa, Lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko prebentzio-neurriei buruzkoa. Era berean, Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan adierazitakoa bete behar da. Agindu horren bidez, aldatu egiten da COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko

prebentzio-neurriei buruzko Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina, normaltasun berrirako trantsizio-planaren 3. fasea gainditu eta gero.

Osasun-Sektorea

Osasuna babestea oinarrizko eskubideetako bat da zuzenbide-estatu guztietan. Egun, herritarrek gutxieneko prestazio sanitarioak eskatzeko duten eskubidetzat ulertzen da eskubide hori, aintzat hartuta giza duintasuna eta estatu bakoitzaren gizartearen eta ekonomiaren garapen-maila. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1. artikuluan dioenez, «persona orok du osasuna eta ongizatea edukitzeko eskubidea, eta batez ere, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak edukitzekoa»; ildo berekoak dira Europako Kontseiluaren Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE, 1966).

Hortaz, greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako beste zenbait eskubideren arteko gatazkan (bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta osasuna babestekoa), ezinbesteko baldintza da azken horiek bermatu beharra.

Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea nahiz osasuna babesteko eskubidea Konstituzioan jasota daude eta garrantzi berezia dute gaur egun. Ezin da ahaztu deitutako greba COVID-19k eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu agintariak hartutako neurri eta gomendioen barruan kokatzen dela. Hala, kontuan hartu behar da Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan adierazitakoa. Agindu horrek aldatu egiten du COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-neurriei buruzko Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina, normaltasun berrirako trantsizio-planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu horren 4.2 puntuak, *“Osasun-zentro, -zerbitzu eta –establezimenduetan segurtasuna bermatzeko antolamendu-neurriei”* buruzkoak, esparru horretarako betebeharrak espezifikoki jakin batzuk ezartzen ditu, osasun-zerbitzuek bete beharrekoak, titulartasuna edozein dela ere. Guzti horiek *antolamendu-, prebentzio- eta higie-neurriak hartu behar dituzte beren langileentzat, erabiltzaileentzat eta, arazoia edozein dela ere, haiekin harreman fisikoa duen beste edozein pertsonarentzat, eta, bereziki, gutxieneko izaerarekin, honako hauei buruzko neurriak: pertsonen arteko segurtasun distantzia, erabilera publikoko leku itxietan maskarak erabiltzea, edukierari, eskuen eta arnasbideen higie-neurriak, bisitan antolatzea, lekuak eta aretoak partzelatzea eta ibilbideen diseinua, garbiketa- eta desinfekzio-protokoloak, bai eta agintari eskudunek ezartzen duten beste edozein neurri ere.*

Osasun-zerbitzuek pertsonen osasuna eta bizia zaindu behar dute. Horren ondorioz, eta greba-deialdiari dagokionez, ez da argudiorik behar edo argudio gutxi behar da azaltzeko larrialdiko zerbitzuak bete-betean mantendu behar direla; izan ere, zerbitzu horietan berehala esku hartu ezean, gerta daiteke norbaiten bizia arrisku larrian egotea.

Era berean, "ospitaleratutako pazientea behar bezala artatu ahal izateko", ospitaleratutako paziente bakoitzari behar bezala eman behar zaizkio botikak, higiene egoera egokia bermatu behar zaio, eta jaten eman behar zaio, otorduak errespetatuz; esan nahi baita, beharrezko asistentzia eman behar zaio, bere osotasun fisiko eta morala honda ez dadin.

Bestetik, zikinkeria kentzea da —nahiz eta zeregin sinplea eman, edo, hain zuzen ere, horregatik— arrisku biologikoa prebenitzeko neurririk garrantzitsuenetako bat, agente biologiko askoren elikagai-iturri baita zikinkeria. Neurri hori oinarritzkoa da betidanik, eta, une honetan, SARS-CoV-2 deritzon koronabirus berriaren ondorioz pandemia-egoera bati aurre egiten ari garela kontuan hartuta, eta birusa transmititzeko metodoak kontaktua eta tantak direla gogoan izanda, funtsezkoa da lokalak eta gainazalak garbitzeko metodoak indartzea. Osasun-arloan, funtsezko jarduera hori orain ezinbestekoa da une oro, programatuta dauden edo puntualki egiten diren garbiketa-eragiketen bidez bermatzeko agente biologikoak ez direla aktibatzen, eta, hala, agenteok ez direla hedatzen. Amaitzeko, kontuan hartu behar da, era berean, isuriak ezabatu eta garbitu egin behar direla, hondakin biologikoak batu eta abar. Izan ere, katebegien gaineko azken jarduera horiek, bereziki garrantzitsuak dira birusa hedatu ez dadin.

Argi dago zeregin horiek guztiak egiten dituzten langileek ez luketela arrisku gehigarririk jasan behar halako lanak egitean. Ondorioz, beren burua babesteko ekipok eduki beharko dituzte, horretarako apropos esleituak.

Arrazoi horiengatik, eta ospitale-zentroen eremu horietan, kontuan hartuta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoerak, une honetan Euskal Autonomia Erkidegoko pandemiaren goranzko joeran dagoenak, 2020ko urriaren 26ko eta 2021eko Urtarrilaren 26ko Aginduetan ezarritako gutxieneko zerbitzuei eustea eskatzen du. Agindu horietan, aurreko deialdiekin alderatuta, gutxieneko zerbitzuak apur bat gehitu ziren eta ohiko langileak jaiegun batekoak izatetik larunbat bateko ohiko langileak izatera pasatu ziren. Izan ere, jaiegunetan baino baliabide gehiago eskaini behar dira COVID 19-aren pandemiak eta osasun-larrialdiak eragindako egoeran pazienteei arreta egokia bermatu ahal izateko, bai eta koronabirusaren proba diagnostikoak egiteko behar den estaldura emateko.

Gainera, osasun-ospitaleen eremu horretan bertan, beharrezkoa da garbiketa zerbitzuarekin lotutako gutxieneko zerbitzuak areagotzea, COVID-19aren aurrean ezarritako jarduera-protokoloak jasotzen dituzten neurriak eta zehaztapenak betetzeko. Beraz, beharrezkoa da zeregin horiek egiteko ohiko langileen %100 egotea.

Osasun-arloko lehen mailako arretari dagokionez, arazorik gabe hartzen da oinarritzko zerbitzutzat, ospitalez kanpoko larrialdiei estaldura ematen dien heinean, batez ere. Jarduera-sektore honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, esan behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako epai batzuen ondotik (2012ko urriaren 3koa, deuseztzat jo zituena 2012ko martxoaren 29an 24 orduko greba orokorra egiteko 2012ko martxoaren 23ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2013ko martxoaren

5ekoa, deuseztat jo zituen 2012ko azaroaren 14an eta 2013ko maiatzaren 30ean 24 orduko greba orokorrak egiteko 2012ko irailaren 19ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxienerako zerbitzuak; eta 2016ko ekainaren 14ko greba deialdia, OSAKIDETZAko langileentzat egina, txanda guztietarako bi orduko tarteetan – ez dago jasota haien aurka egin zenik, ez administrazio-bidetik, ez auzibidetik–), gobernu agintariek erabaki zuten larunbatetako lanaldiari dagokiona –eta larunbatetako ohiko ordutegia– ezarriko zutela lehen mailako arretarako gutxienerako zerbitzu gisa, greba egunerako aurreikusita zegoen langilekopuruarekin; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei. Zerbitzu berberak ezarri ziren 2018ko martxoaren 8ko greban. Azken horretan, hala ere, nahiz eta pertsonaren oinarriko eskubideak babesteko jurisdikzio mailako prozedura bereziaren bidez errekurtsioa jarri zen, salak, zuzenbidearekin bat zetorrela interpretatu zuen. Ondorioz, hurrengo deialdietan – 2019ko martxoaren 8an– idazkuntza egokiagoa egiteko ahalegina egin zen. Azken idazkuntza hori baketsuagoa izan zen eta, orain ere, hori bera errepikatu da.

Era berean, lehen mailako arreta-eremuan, ospitaleei buruz lehenago azaldutako arrazoi berengatik, beharrezkoa da garbiketa-zerbitzuari dagokion gutxienerako zerbitzuen gehikuntzari eustea, COVID-19 delakoaren aurrean ezarritako jarduera-protokoloetan jasotako zehaztapenak eta neurriak betetzeko, eta zeregin horiek ohiko langileen %100ek egin behar dituzte.

Larrialdi-zerbitzuei eta etengabeko arreta-guneei (EAG) dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi zuen errekurtsogileak larrialdi-zerbitzuetarako eta etengabeko arreta-guneetarako ezarritako gutxienerako zerbitzuen inguruan zuen asmoa; hau da, zerbitzu horiek gehiegizkotzat jotzea (%100eko zerbitzuak ezarri ziren), arrazoi hau aipatuta: “larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta etengabeko arreta-guneen helburuak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan (osasunaren eremuan), osotasun fisikoa eta bizitzeko eskubidea ahaztu gabe, errekurtsioa jaso duen aginduan bildutako gutxienerako zerbitzuak ezartzea”; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailean funtsezko erreforma bat egin zela erabiltzaileen arretan, CALL CENTER izeneko sistema ezartzean. Sistema horrek, osasun-arreta bere horretan ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen harremana baita; zerbitzu hori bereziki nabarmena da osasun-aholkuari dagokionez. Izan ere, telefono-zerbitzua da, eta lehen mailako arretako erizaintzako langileek ematen dute. Bertan, erabiltzaileen premiak balioesten dituzte eta, haien egoeraren arabera, dagokion zerbitzura bideratu. Zehazki, larrialdi-zerbitzura (bizilekura anbulantzia bat bidalita) edo etengabeko arreta-gunera (bizilekurako abisua zuzenean kudeatuta) bidera daitezke. Garbi dago, beraz, Call Center izeneko osasun-larrialdietara bidera daitezkeen deien iragazkia dela, osasun-aholkuan gerta litekeen kolapsoa saihesten duela, eta osasun lehenbaita duten deiak eta dei arruntak bereizten dituela. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egiten ditu, hala nola aurrez ordua eskatzeko deiak hartzea, IVR telefono-sistema bidez operadore birtual gisa jardutea, zenbaki generikoetatik aurrez ordua eskatzeko iristen diren deiak hartzea, zerbitzuei buruzko

informazio orokorra ematea, etab. Azkenik, Autonomia Erkidegoko zentro guztietako O-Sarean barruko zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari lotutako barne-gorabehera teknikoak kudeatzen ditu. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme hori dela eta —eta bereziki Osasun Aholkua zerbitzuak bultzatuta— jo du gobernu agintaritzak honek zerbitzu hori bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzutzat, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen heinean.

2014. urtean, Call Center Korporatibo zentralizatua bi sistemarekin ordeztu zen:

a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da ambulatorioen artean. Ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea sistema horretan.

b) Eta Arabako ESlan, Donostialdeako ESlan, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlan, Bilbo-Basurtuko ESlan, Uribeko ESlan, Debabarrenako ESlan, Bidasoako ESlan, eta, oraintsuago, Tolosaldeako ESlan Call Center sistema bat ezarri da. Sistema horrek lehengo Call Center Korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu baina erakunde bakoitzera mugatuta dago.

Bigarren call center mota honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra honako hauek arrazoitzen dute; batetik, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, erakunde sanitario bakoitzera mugatuta bada ere; eta, bestetik, telefono bidezko arreta oso garrantzitsua da; izan ere, arreta hori funtsezkoa da osasun antolamenduan, herritarrek osasun-sistemarekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen dituzten bideetako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, telefonoz ordua aurrez eskatzeko eskariaren banaketa orekatuagoa lortzen da eguneko orduetan. Horri esker, zerbitzuek ez dute gainezka egiten lehen orduetan, eta telefonoz bideratzen ez diren pertsonak ez dute nahitaz osasun-zentrora joan behar.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko Call Center Korporatiboan urteko egun guztietan egiten zela lan, nahiz eta astelehenetik ostiralera bitartean jarduteko plantilla bat egon eta larunbaterako beste bat. Egungo call center zerbitzua antolatuta dagoen moduan, berriz, ez da zerbitzurik ematen larunbatetan. Beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbatetako zerbitzuetara mugatzea zerbitzurik ez ezartzea izango litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaiak berretsi zuenez. Hori guztia dela-eta, Osakidetzaren Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, egungo plantillaren %50 behar da zerbitzu hori betetzeko, eta, hortaz, lan horiek egin ohi dituzten langileen ehuneko hori ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Inguruabar horietan guztietan oinarrituta, deialdi honen aurretik egindako greba deialdietan, aipatutako zerbitzuari eragiten zioten heinean, ondorengo aginduak eman ziren: 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua, 2016ko ekainaren 10eko

Agindua, 2018ko otsailaren 27ko Agindua, 2019ko otsailaren 28ko Agindua, eta, horietan guztietan, ehuneko hori ezarri zen gutxieneko zerbitzutat.

Bestetik, SARS-Cov-2 koronabirusak eragindako pandemia-egoeraren ondorioz, oso garrantzitsua da berehalako arreta eta informazioa ematea bai herritarrei, bai profesionalei, zehatz betetzeko kutsatze posibleen aurrean hartu beharko dituzten neurriak, kontaktuen aztarnei jarraitzeko egin beharreko lanak eta kutsatutako pertsonak izandako harremanen gainean egin beharreko jarraipena, bai eta birusaren hedapena mugatu ahal izateko beharrezko neurriak hartzeko ere.

Horretarako, kasuak eta kontaktuak zaintzeko programarako sareko ekipoak eta infekzio aktiboa diagnostikatzeko test-laginak ateratzen dituzten zerbitzuak/unitateak sortu dira. Azken horiek, beharrezkoa den guztietan, osasun-zentroetan lan egiteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietatik mugitzen dira, herritarrei eta bertako langileei diagnostiko-probak egiteko erraztasunak emateko, batez ere masiboki egiten direnen kasuan. Halaber, Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak eta Prebentzio Medikuntza ari dira zeregin horiek egiten.

Hori dela eta, gutxieneko zerbitzuak ezarri behar dira horietan guztietan, eta infekzio aktiboko diagnostiko-testeko laginak ateratzeko zerbitzuetako/unitateetako langileen %100ean finkatu behar dira, bai osasun-zentroetan, bai EAEko udalerrietan horretarako prestatzen diren lekuetan, bai kasuak eta harremanak zaintzeko programako sareko ekipoetan, bai eta Laneko Arriskuen Prebentzioan lan egin behar duten langileen %100ean ere.

2020ko abenduaren 27an, Covid 19aren aurkako txertaketa-kanpaina hasi zen Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal herritar guztien osasuna zaintzeko eta osasun sisteman eta gainerako sektoreetan duen eragina murrizteko. Gaur egun, txertoa da kutsatzea kontrolatzeko eta prebenitzeko neurri eraginkorrenetako bat. Bestalde, EAEn SARS-Cov-2ren aurkako txertaketa-planak ezaugarri bereziak eta apartekoak ditu eta txertoen eskuragarritasunera etengabe egokitu behar da. Txertaketa-estrategia populazio-talde desberdinen lehentasun-irizpideen arabera zabaltzeko, txertaketa-puntu/-zentro espezifikoak antolatzen ari dira, osasun-zentroetatik kanpo. Txertoek ematen duten onura maximizatu behar denez SARS-Cov-2 koronabirusak eragindako pandemiaren inpaktua eta larritasuna murrizten laguntzeko, zerbitzu horretan gutxieneko zerbitzuak ezarri behar dira, eta zerbitzu horiek SARS-Cov-2ren aurkako txertaketa-ekipoetako langileen %100ean finkatu behar dira, bai osasun-zentroetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan horretarako prestatutako lekuetan.

Larrialdi eta Segurtasun sektorea

Larrialdiei aurre egiteko bide-segurtasuneko zerbitzuak (SOS DEIAK, larrialdiei eta meteorologiari erantzutea, suhiltzaileak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentze-lanak, neguko bide-zerbitzua barne, eta urtegi, ibai eta mendietako larrialdiak, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa...) eta Segurtasun Saileko komunikazio

eta informatika atalek ematen dituzten prestazioak ezinbestekoak dira komunitatearentzat, larrialdi bat ezbehar bihur ez dadin eta ezbehar horien aurrean jarduteko baitira. Botere publikoei dagokie bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko konstituzio-eskubideak bermatzea, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotakoak, horretarako prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Eskubide horiek ezin dira babesik gabe geratu, greba egiteko eskubidea zilegi bada ere. Beraz, sektore hori funtsezkotzat jo behar da komunitatearentzat, eta, beraz, zerbitzua ezinbesteko langileek ematea premia aitortu eta atzera ezinekotzat hartu behar da. Horretarako, greba-deialdiaren eraginpeko lurralde-eremuan dauden larrialdi-zerbitzuetan, urteko garai horretako jaiegun bateko langileei eutsiko zaie, Segurtasun Departamentuko komunikazio eta informatika arloan izan ezik, non teknikari bakar bat aski dela uste baita.

SOS DEIAK zerbitzuak aipamen berezia merezi du. Kasu honetan, ezinbesteko zerbitzu hori emateko gutxieneko zerbitzu egokiak ezartzeko, kontuan hartu behar da zerbitzu horietako telefono-arretaren ohiko tamaina pentsatuta dagoela normaltasun-egoeran eguneko dei-kopuruari erantzuteko. Beraz, zerbitzua emateko gutxieneko edo oinarrizko pertsona-kopurua hartzen da kontuan, larrialdi-egoerak ezin direlako ez aurreikusi ez planifikatu. SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroek urtean 1.400.000 dei erantzuten dituzte, eta 171.000 gorabehera baino gehiago koordinatzeko lanetan parte hartzen dute.

Hori guztia dela-eta, zerbitzua mantentzeko eskatu beharreko gutxieneko zerbitzuak ohiko egun baterako planifikatutako kopurura iritsi behar dira. Izan ere, kopuru txikiagoa ezartzen bada, gerta daiteke herritar baten deia ez jasotzea lineak edo operadoreak gainezka daudelako, eta, ondorioz, gerta daiteke giza biziak (pertsona batena, zenbaitena edo askorena) salbatzeko baliabideak atzeratzea edo ez mugiaraztea. Ezinezkoa da zain dauden deiak zerrendatzea, eta alertarik ez galtzea lortu behar da; izan ere, alertaren bat galtzen bada, larrialdi-zerbitzuek ez dute izango esku hartzeko behar duten informaziorik. Horrez gain, baliteke beharrezkoa izatea, zerbitzuaren ohiko kopurua egoteaz gain, unean-uneko laguntza ere eskatzea, larrialdi-plan bat aktibatu delako edota greba-egunean larrialdi-kasu larriak gertatu direlako. Beraz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da greba-egunean ohiko egun baterako aurreikusitako langileen %100 estaltzea, bai operadoreen lanpostuetan, bai gainbegiraleenetan; izan ere, gainbegiraleek, koordinazio-lana egiteaz gain, telefono bidezko arreta ere ematen dute, eta lan-txandatik hurrengo errelebora transferentzia egiteko arduradunak dira, lehenago ere azaldu den bezala. Baliteke zerbitzuaren tamaina horri laguntzaren bat gehitu behar izatea, gerora sortutako larrialdi-egoera larrietan. Euskal Autonomia Erkidegoko contact center sektorean eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan egin diren azken greba-deialdietan, 2017ko martxoaren 3ko Agindua eta 2017ko martxoaren 15eko Agindua eman ziren, hurrenez hurren, eta ohiko egun baterako aurreikusitako langileen %100 ezarri zen gutxieneko zerbitzu gisa. Berdin jokatu zen 2020ko urtarrilaren 30ean greba orokorrerako deialdian. Ildo beretik jardun zen 2021eko urtarrilaren 30erako eta 2021eko apirilaren 22rako greba orokorreko deialdietan, sektore honetan oraingo deialdiarekin parekatu daitezkeenak.

Gizarte-Zerbitzuen sektorea

Gizarte-zerbitzuak, bestalde, babes-neurrien multzo gisa daude eratuta, mendekotasuna duten edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bizitzeko gutxienezko baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzeko. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoek dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. 10.1 artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, botere publikoek «aurreneurri- tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute urritu fisiko eta psikikoentzat eta zentzumen-urrituentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ezin da ukatu honako hauetan lan egiten dutenen jardura oso garrantzitsua dela gizartearentzat: egoitza-zerbitzuak (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak), eguneko zentroak –desgaitasun fisikoak eta psikikoak dituztenei arreta emanez–, etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza-zerbitzuak, adingabeen etxebizitza komunitarioak eta egoitzak, eta esku-hartze sozialeko zentroak. Zerbitzu horien beharra duten pertsonen ezin dute beren kabuz jardun, haien egoera subjektibo eta pertsonala dela-eta. Beraz, sektore honetan gutxienezko zerbitzuak finkatu ezean, baliteke kalte nabarmen larriagoak eragitea, eta, hartara, grebaren helburuak lausotuta geratzea; izan ere, egoera horietan, pertsona batzuen osasuna eta segurtasuna arriskuan jar daitezke.

COVID-19k eragindako osasun-egoera dela eta, kontuan hartu behar da, berriro ere, Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan adierazitakoa. Agindu horren bidez aldatu egiten da Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina. Agindu hori COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak buruzkoa da, normaltasunerako trantsiziorako planaren 3. fasea amaitu ondoren. Agindu horren Eranskinaren 4.3 puntuak, "Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan segurtasuna bermatzeko antolamendu-neurriak" buruzkoak, esparru horretarako betebeharrak espezifikoki jakin batzuk ezartzen ditu, osasun-zerbitzuek bete beharrekoak, titulartasuna edozein dela ere. Guzti horiek *antolamendu-, prebentzio- eta higie-neurriak hartu behar dituzte beren langileentzat, erabiltzaileentzat eta, arazoia edozein dela ere, haiekin harreman fisikoa duen beste edozein pertsonarentzat, eta, bereziki, gutxienezko izaerarekin, honako hauei buruzko neurriak: pertsonen arteko segurtasun distantzia, erabilera publikoko leku itxietan maskarak erabiltzea, edukierari, eskuen eta arnasbideen higie-neurriak, bisitan antolatzea, lekuak eta aretoak partzelatzea eta ibilbideen diseinua, garbiketa- eta desinfekzio-protokoloak, bai eta agintari eskudunek ezartzen duten beste edozein neurri ere. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan jasotako gainerako zerbitzuen prestazioari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoari buruzkoa, kutsatzeko arriskuak prebenitzeko higie-neurri egokiak hartzen direla ziurtatuz egin beharko direla ezartzen du.*

Kontuan hartuta zentro horietako erabiltzaileek kalteberatasun berezia dutela SARS-Cov-2k eragindako infekzio larrien aurrean eta heriotza-tasa altua pairatzen ari direla, eta aintzat hartuta transmisioa areagotu egiten dela inguru itxiotan pertsonen hurbiltasunaren eta harreman estuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren eraginak bereziki latzak dira kolektibo horietan.

Horregatik, Osasun Sailak hainbat dokumentu egin ditu, zeinak etengabe berrikusten baitira, eta, dokumentu horietan, egoitzetako eta zentro soziosanitarioetako SARS-Cov-2 koronabirusaren aurreko neurriak eta gomendioak zehazten dira. Honako hauek:

- Zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaindu eta kontrolatzeko protokoloa, 2021eko maiatzaren 12koa.
- IT-01. Egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak, 2020ko apirilaren 1ekoa.

Adinekoentzako egoitza-zentroen eta adinekoentzako eguneko zentroen kasuan, horietako bakoitzean prestatutako kontingentzia-planak eta prebentzio-planak aplikatzeko, osasun-agintariak emandako protokoloak eta araudiei jarraiki, ezinbestekotzat jotzen dira zenbait neurri, besteak beste, egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako arkitektura- eta langile-sektorizazioak, egoitza-zentroetako erabiltzaileen sailkapena tratamendu-kohorteetan, eta langile guztien babes mugatuko politika, langileen banakako kontaktu eskusiboa dakarrena.

Bestalde, eta orain arte hartutako neurriak indarrean mantentzeko beharrari dagokionez, zentro horietako txertaketa-kanpainari esker erabiltzaile eta langile guztiak txertatuta egon direla esan daitekeen arren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2021eko maiatzaren 12an egindako Protokoloak adierazten du orain arte indarrean zeuden prebentzio- eta kontrol-gomendio guztiak mantendu behar direla, txertaketa-kanpainaren egoera edozein dela ere. Honela adierazten du:

“COVID-19 txertaketa-kanpainak lehentasuna eman die adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroeiei eta eguneko-zentroeiei. Horri esker, epe laburrean gaixotasunaren intzidentzia nabarmen murriztu da, eta, horrekin batera, kasu larriak eta heriotzak, isolamenduak eta berrogeialdiak.

Egungo ebidentziak COVID-19ren aurkako txertoak infekzio sintomatiko eta asintomatikoa, gaixotasun arina, moderatua eta larria eta heriotza-tasa murrizteko eraginkorrak direla erakusten du. Jakina da txertoek eragindako immunitateak ez duela erabat eragozten txertoa jaso duen subjektuaren goiko arnasbideetako mukosan birusa erreplikatzeari, eta txertoaren eraginkortasuna ez da % 100era iristen. Gainera, erantzun immunea murriztuagoa da hainbat populazio-taldetan (adineko pertsonak, immunodeprimituak), eta aldaera berrien zirkulazioagatik baldintzatuta egon daiteke.

Txertatutako pertsonetan birusa detektatzea posiblea den arren, orokorrean pertsona hauek ez dute sintomarik izaten. Eskuragarri dauden azterlan urrien arabera, txertatutako kasuek birusa beste pertsona batzuei transmititzeko aukera oso baxua izango litzateke, baina posible izan liteke.

Horren ondorioz, egungo egoera epidemiologikoa eta txertaketa-estaldura kontutan izanda, bai egoiliarrek bai langileek orain arte indarrean zeuden prebentzio eta kontrol gomendio guztiei jarraitu behar diete, beren burua eta gainerakoak SARS-cov-2 infekziotik babesteko, haien txertaketa-egoera edozein dela ere.

EAEko egoitza-zentroetako txertaketa-kanpaina hasi zen denbora gutxitik hona antzeman den arazo larri bat, egoiliar eta langile batzuk txertoa ez dutela jarri nahi da. Pertsona horien ehunekoa txikia bada ere, egoera horrek agerraldiak eragin ditu dagoeneko EAEko egoitzetan eta txertoa hartu duten pertsonen kasuak izan dira. Horrez gain, kasuen eta haien kontaktuen isolamendura eta berrogeialdira itzuli behar da, pandemia osoan adineko pertsonen bizi izan duten sufrimendua areagotuz”.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da zerbitzu horien prestazioan garatzen diren egiteko guztiak ez direla ezinbestekoak. Ezinbesteko egitekotzat ulertu beharko dira «zuzeneko arretako zerbitzuak»; zerbitzu horien xedea da arreta jasotzen dutenen norberaren zainketa oinarrizkoak mantenduko direla bermatzea. Zuzeneko arretako zerbitzuen barruan, arreta sanitarioaz eta geriatrikoaz gain, beste hauek ere baditugu: otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, mendekotasun-egoeraren arabera, higiene pertsonala eta altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza. Era berean, eremu biopsikosozialaren mantentze eta kontserbaziotzat hartzen dena ere bermatu beharko da.

Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa dago goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa, gosaria eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da gerokultoreen aldetik. Horren ondorioz, ordu horietan, beharrezkoa da langile horietako gehiago egotea, egoitzetako bezeroen beharrezko erantzuteko jarduera txikiagoa den gainerako orduetarako ezarritako oinarrizko langileei laguntzeko.

Eguno egoeran, osasun-agintariek egoitzetan eta eguneko zentroetan egin beharreko gomendioen artean sartu dituzte zenbait betebeharrak, dagoeneko egiten ziren funtsezko betebeharren artean sartu beharrekoak. Zehazki, antolaketa-eredu berrietatik eratorritakoez ari gara, besteak beste, sektorekatzeaz eta langileak kohorteetan banatzeaz. Gainera, erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia kontrolatzearekin eta taldeko eta/edo banakako jarduerak egiteko moduarekin lotutako lan berriak ere sartu dira, bai eta egoiliarren egoera klinikoa kontrolatzearekin lotutakoak ere (tenperatura kontrolatzea eta sintomak behatzea, higiena handitzea, etab.).

Aurretik azaldu dugun moduan, Txertaketa-kanpaina hasi bada ere, pandemiaren egoerak eta osasun-gomendioek –, bideraezina egingo lukete gaur egun % 100etik beherako zuzeneko arreta ematea; zerbitzu horien erabiltzaileak kutsatzeko arrisku-egoeran jarriko lituzkete. Horren ondorioak azken hilabeteetan bizitzen ari gara.

Ildo beretik jo du behin baino gehiagotan Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak eremu soziosanitarioko egoitza-zentroetan grebak egiteko deialdiaren harira egindako txostenetan (2020ko urriaren 7ko, otsailaren 15eko eta maiatzaren 5eko 2021eko txostenak), eta txosten horietan ezartzen da orain arte indarrean zeuden prebentzio- eta kontrol-gomendio guztiei eutsi behar zaiela.

Premisa horietatik abiatuta, greba orokorraren deialdi honetarako, adineko pertsonentzako eta/edo mendekotasun edo ezgaitasunen bat dutenentzako egoitzetan zuzeneko arreta egiten duten gerokultore edo parekatuen %100 mantenduko da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna. Eremu horretan, halaber, salbuespenezko egoeraren ondorioz, gutxienez ezarri ohi diren zerbitzuak indartu egin behar dira, osasun-agintaritzen gomendioak betetzeko. Kasu honetan, erabiltzaileen egoera klinikoen kontrol handiagoa egin beharra dago, eta osasun zerbitzuen erabilera kontrolatua egiteko gomendio orokorrak aplikatu behar dira. Ondorioz, langile horiek egin ohi dituzten lanak areagotu egin behar dira, osasun-agintaritzek egiten dituzten gomendioak betetzeko.

Zuzeneko arreta zerbitzuez gainera, beste mota bateko arreta zerbitzuak ere ematen zaizkie, maila apalagoan izan arren. Zerbitzu horiek, zeharka, aurreko zerbitzuen mende daude (sukaldaritza, garbiketa, garbitegia, ...), edo egoitza-instalazioen eta –zerbitzuen koordinazioari, mantentzeari eta segurtasunari laguntzen diote. Aurreko aginduetan, zerbitzu horien intentsitatea eta horiek egiteko langileen kopurua arreta zuzenekoak baino txikiagoak izan dira. Alabaina, aurretik azaldu bezala, SARS-Cov-2 koronabirusak ekarri duen egoera kontuan hartuta, osasun-agintariek neurri eta gomendio jakin batzuk onartu eta argitaratu dituzte. Garbiketa eta arropa-garbitegia bezalako zeharkako zerbitzuei ere badaude lotuta neurri eta gomendio horiek eta, aurreko deialdietan langileen kopurua eta zerbitzuaren emakidaren intentsitatea txikiagoak izan badira ere, gaur egungo egoera eta osasun neurri eta -gomendioak ikusita, nabarmen handitu behar dira.

Elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera.

Bere aldetik, garbiketa-zerbitzua indartu behar da, osasun-agintarien neurrietan zehaztutako intentsitatea eta maiztasuna bete dadin; hau da, bereziki da nabarmentzekoa garbiketa-zerbitzua, eta zehazki, zentro guztiaren desinfekzioa. Hala, maiztasuna areagotu egingo da: txanda bakoitzean gutxienez garbiketa bat, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan garbiketa sakona egiteko, bai eta kontaktu gehien duten gainazal eta eremuak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaletan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatueta, telefonoetan, tabletetan, gurgil-aulkietan, makuluetan eta abar.

Garbitegi-zerbitzuan, zerbitzua duten zentroetan, arropa zuria eta zerbitzuari dagozkion gainerako tresnak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala garbitzen da. Zerbitzu hori indartu eta zabaldu egin behar da; izan ere, osasun-agintariek koronabirusak eragindako izurritea kontrolatzeko zehazten duten bezala, arreta berezia jarri behar zaio arropa garbitzeari, eta, beraz, garbitegi-zerbitzuak eman behar dituzten langileak % 90eraino gehitu behar dira, zerbitzua osasun-agintariek gomendatzen duten moduan egin ahal izateko.

Harrera eta atezaintzako zerbitzua ere zeharkako zerbitzuen barruan dago, eta zerbitzu hori ere indartu behar da. Izan ere, zentroetara egiten diren bisiten gainean ere egin dituzte gomendioak osasun-agintariek: bisita horiek mugatu dira, eta bertaratzen diren pertsonen datuak jaso behar dira; gainera, tenperatura hartu behar zaie bisitariei.

Aurretik zehazten diren zerbitzu horietarako (sukaldaritza, garbiketa eta harrera-atezaindegia), zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren ezinbestekotasunaren irizpide bera aplikatu behar zaie, baita ere, mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroei, zeinetan, oro har, langile gutxiago izaten baitira egoitzetan baino; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, hain zuzen, langileei buruzkoa da). Zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 100ekin.

Eguneko zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, «greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien arduraren helduen zaindarepean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduerak batzuk gauzatzeko, funtsean lan jarduerak, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan ezinbesteko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendetasun egoeran dauden pertsonen garraioa, horien desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako ezinbesteko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira mugikortasun ahalmenarekin egokitutako

bestelako garraiobideen bitartez egin. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarritzako funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritza honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko Epaiak, zeina 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdirako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduarekin lotuta eman baitzen, eguneko zentroek ematen duten zerbitzuan sartzea bermatzen duelako garraio mota hori ezinbestekoa zela onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapen hori arrazoitu beharra zegoela «zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik», eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Erabiltzaileen ezintasunengatik gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek zerbitzua ematea behar-beharrezkoa den neurrian, ezin da %100etik beherako portzentajerik eman. Bestalde, kasu horietan ere ezin da ezarri egin beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua eman arren haren intentsitatea txikiagoa izan dadin, horrek langile horiek egin beharreko lanaldiaren luzapena ekarriko bailuke, ohikoa baino luzeagoa. Egoera honetan, beraz, garraio bereziarekin egiten den zerbitzuaren funtsezkotasuna bermatzeko behar den prestazioak langile horietako batzuek, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak izanik, greba egiteko eskubidea erabat mugatzea ekar dezake, salbu eta erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara behar bezala egokitutako bestelako garraiobideak aldi berean daudenean.

Greba-deialdi honek hainbat enpresa edo erakunderi atxikitako hainbat langile dauden zentroei eragiten die. Hori dela eta, zenbait zentrotan grebara deituta dauden langileak egon daitezke greban ez dauden langileekin eta horrek esan nahi du greban bete beharreko gutxieneko langile- eta zerbitzu-ratioak bi kolektibo horien artean finkatu behar direla, lan horiek modu eraginkor eta ohikoan egiten baitituzte.

Bestetik, Etxeko Laguntza Zerbitzua gizarte-zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluan jasotzen dena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dauden zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean. Barne hartzen ditu laguntza pertsonaleko, orientazioko eta egunerokotasuneko oinarritzako jarduerak zuzenean egiteko arreta-zerbitzuak, hala nola ohetik jaikitzea eta oheratzea, janzteia, etxea garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioa kontrolatzea, mugitzea eta joan etorriak egitea, familiaren antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea. Horiez gain, beste jarduera osagarri eta beharrezko batzuk ere egiten dira, zerbitzuaren xedeak lortzeko beharrezkoak direnak, bai eta etxetik eguneko zentroetara edo osasun zentroetara joaten lagundu ere.

Zerbitzu horien onuradun dira, maila ezberdinetan, bakarrik dauden edadetuak edo mendekotasun-egoeran daudenak, eta, beraz, babes berezia jaso behar dute, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizirako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak bermatze aldera. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu.

Adingabeen egoitzei, gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonentzako egoitzei, etxebizitza komunitarioei eta esku-hartze sozialeko zentroeiei dagokienez, egoiliarren bizia, osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta osotasuna bermatu behar dira, eta, horrenbestez, greba egin ahal izateko, eskubide konstituzional horiek bermatzen duten gutxieneko zerbitzuak mantenduko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko autoak ordeztu egin zituen bakarrik dauden adingabeen zentroetarako eta eskuhartze sozialeko zentroetarako lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak –2013ko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez jarriak–, eta, horien ordean, jaiegun batekoak ezarri zituen. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 epaiaren bidez, deuseztat jo ziren 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan lagunduta dauden adingabeentzako egoitzetarako ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak –lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak ezarri ziren–, eta bidezkotzat jo zen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoak izan behar zirela.

Hezkuntza-sektorea

Hezkuntzaren arloari dagokionez, premisa gisa hartu behar da hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan onartutako oinarritzko eskubidea dela, zentzu zabalean hartuta, unibertsitate-hezkuntza barne, Auzitegi Konstituzionalak 26/1987, FJ 4., a) epaian adierazi zuen bezala: «hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztapenetik kanpo ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubideaz baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu ezinbesteko zerbitzu horiek zehazteak Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubideari buruzkoa) urratzen duenik».

Aipamen berezia egin behar da hezkuntza bereziko zentroeiei buruz. Izan ere, hezkuntza-zentroak diren arren, bereziki babesgabea eta kaltebera den kolektibo bati zuzenduta daude, eta, horregatik, hezkuntza-zentro horiek asko hurbiltzen dira gizarte zerbitzu izatera; ondorioz, esparru guztietan tratamendu berezia eman behar zaie.

Bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzuak zeintzuk diren zehazteko, eta, beraz, hezkuntza-eremuan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan hartu behar da greba deialdiak hezkuntza-zentro guztietan eta hezkuntza-arloko funtzioak eta eskumenak garatzen dituzten langile guztiengan –funtzionarioak nahiz lan-kontratadunak– duela eragina.

Eginiko greba-deialdiaren eremua kontuan izanik, hezkuntza-zerbitzuaren esparruaren barruan, sektore publikoko enplegatu publiko eta lan-kontratudun langile ez publiko guztiak barne hartzen ditu horrek, hezkuntza-egitekoak eta -eskumenak garatzen baldin badituzte, hezkuntzari lotutako egitekoak eta lanak egiten baldin badituzte. Zehazkiago, eragin-esparrua hau izango litzateke: Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua zentro publikoetan; Haurreskolak Partzuergoa eta udal-titulartasuneko haurtzaindegiak; Euskal Herriko Unibertsitatea, goi-mailako musika-ikastegia (MUSIKENE) eta udal-titulartasuneko musika-eskolak; eta hizkuntza-eskola ofizialak.

Greba-egun bakarra dela kontuan hartuta ere, zentroak irekitzea nahitaezkoa eta beharrezkoa da greba egiten ez duten langileek lan egiteko eskubidea izan dezaten, Konstituzioaren 35. artikuluan aitortzen baita eskubide hori. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetara eta lotutako eraikinetara sartzeko kontrola bermatzea, gutxienez, grebarako eskubidea erabili nahi ez duten langileen eta ikasleen sarbidea babesteko, izan ere, ikastetxeak ireki gabe, lanerako eta hezkuntzarako duten eskubidea erabat eta arrazoirik gabe eragotziko litzateke.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak eta udal-haurtzaindegiak zabaltzeko beharrari dagokionez, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babesteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko Epaian adierazitakoari jarraikiz, ezinbesteko zerbitzua da, bai Konstituzioaren 27. artikulua aitortzen duen hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen ikuspegitik, bai lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko zailtasunaren ikuspegitik; gainera, lan egiteko eskubidearekin lotuta dago, gizarte-harremanen bilakaera-izaera dela-eta.

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharrizan bakarra ez da «ikastetxea irekitzea» jarduera material gisa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» gauzatu behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe haietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez –irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezgaiak zaintzeko ardura hartzen bada [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketan edozein lesio edo kalte saihesteko –Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sek.)–. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe haietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneetara zuzentzeko ardura beren gain hartu dezaten.

Era berean, Espainiako Konstituzioaren 15. eta 43. artikuluetan jasotako bizitzarako eta osotasun fisikorako eta moralerako eskubide konstituzionalek eta osasunerako eskubideak garrantzi berezia dute gaur egun. Adierazi dugun bezala, ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19k eragindako osasun-krisiaren eta osasun-, gobernu- eta hezkuntza-agintariek hartutako neurrien barruan kokatzen dela. Hala, 2020ko uztailaren 28ko Agindua, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero, ondorengo zehazten bostgarren puntuan: *Hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduera presentzial guztiak prebentzio-, osasun- eta higiene-arauak errespetatuz egingo dira, babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz, eta maskarak erabiliz*. Bestalde, lehen aipatutako lehendakariaren martxoaren 6ko 13/2021 Dekretuaren eranskinaren 7. puntuan adierazten denez, *Aurrez aurreko hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduera oro, araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagokienez, etapa eta maila desberdinak barne, eta goi-mailako hezkuntzari dagokienez, bai eta bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerei dagokienez ere, eranskin honetan jasotako arauen arabera garatuko da, eta betiere 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurka jarduteko Hezkuntza Sailak egindako protokolo orokorraren arabera*.

Horregatik, gaur egungo osasun-egoera dela eta, Hezkuntza Sailak hainbat prebentzio-neurri sartu ditu, bere webgunean argitaratzen diren hainbat dokumentutan jasotzen direnak (<https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>). Bereziki, hauek dira:

- Ikasturte hasierarako Jarduketa-protokolo Osagarria eta ikastetxeetan COVID-19 kasuak agertzen direnerako Jardunbideak.
- Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra. 2020-2021 ikasturtea.
- Prebentziorako neurriak. 2020-2021 ikasturtea.

Irailaren 15erako hezkuntza-sektoreko greba-deialdian, COVID-19a dela eta, txosten bat eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari. Txosten horretan ondorioztatzen zen *Hezkuntza Sailean indarrean dauden jarduera-protokoloetan eta ikastetxeetako kontingentzia-planetan COVID-19ari aurre egiteko ezarritako prebentzio-neurriei eusteko beharrezkoa zela beharrezko langileak izatea eta:*

- *Talde egonkorak mantentzea*
- *Pertsona fluxuen antolamendua*
- *Distantziak mantentzea*
- *Maskaren erabilera zaintzea*
- *Eskuak garbitzea eta instalazioak garbitzea*
- *Kasuak kudeatzea*

Azken puntu horri dagokionez, ikastetxeek beharrezko informazioa eta pertsonak izan beharko dituzte COVID-19 kasu positiboen azterketa egitea errazteko, bai eta horren ondorioz hartzen diren neurriak ezartzeko ere. Ikastetxeko zuzendariak eta COVID-19 delakoarekin zerikusia duten gaietarako erreferentziako arduradunak ikastetxean egon beharko dute.

Jangela zerbitzuari dagokienez, zerbitzu horiek funtsezkoak dira, ukitutako eskubideak ere funtsezkoak direlako —hezkuntza eta haurren eta nerabeen babes eta garapen integralarekin zerikusia duten eskubideak—. Horrela jasotzen da Estatuaren araudian: 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, berriz, hemen jasotzen da: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. Jurisprudentziak berretsitako alderdiak, Auzitegi Gorenaren aurreko aginduetan behin eta berriz adierazitakoak: Auzitegi Gorenaren 1994ko maiatzaren 20ko epaia, eta Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 14ko epaia. Epai horietako lehenak honako hau ezartzen du: «ikasleei eguerdian bazkaria erabat kentzeak osasunerako eta hezkuntzarako eskubide konstituzionalak urratzen ditu». Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, lurralde-deialdien aurrean, funtsezko izaera hori aitortu du (ikusi 2010eko abenduaren 22ko eta 2011ko urtarrilaren 13ko epaiak).

Garbiketa-zerbitzuei dagokienez, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak (Espainiako Estatuak 1990eko azaroaren 30ean berretsia) 24. Artikuluan xedatzen du haurrek eskubidea dutela ahalik eta osasun-mailarik onena izateko, eta horretarako oinarritzeko direla higiearen arloko neurriak, ingurumen-osasunari lotutakoak eta istripuei aurrea hartzekoak. Hori dela eta, haurrek egunaren parte handi bat greba-deialdiak eragindako ikastetxeetan igarotzen dutenez, neurriak hartu behar dira zentro horietan gutxieneko higie- eta osasungarritasun-baldintzak betetzen direla bermatzeko, haien osasuna, hazkuntza eta garapena arriskuan jar ez daitezen, eta bereziki kontuan izanik ume txikienek ezagutza-gaitasun txikiagoa dutela higieari buruz.

Gainera, eta gaur egungo osasun-larrialdiko egoeran, garbiketarako garrantzi berezia du kutsatzeak saihesteko. Hori horrela, arlo horretako jarduerak bereziak ezartzen dira lehen aipatutako protokoloetan, eta, ondorioz, ohiko garbiketa-zerbitzuak indartu behar dira zentro horietan.

Horregatik guztiagatik, deitutako grebaren kasuan, lan-agintaritzak honek egokitzen du grebak eragindako zentro guztietan, ikastetxetarako sarrera-kontrola bermatzeko, ikastetxe bakoitzeko eta atxikitako eraikin bakoitzeko zuzendaritza-taldeko pertsona bat eta mendekoen plantillako pertsona bat ezartzea goizeko txandarako, eta beste bat arratsaldeko txandarako, halakorik badago. Halaber, osasun- eta hezkuntza-agintariek hartutako neurriak betetzeko, COVID-19rekin lotutako alderdietarako erreferentziazko arduradunak zentroan jarraitu beharko du.

Hala ere, funtsezko zerbitzu horiek betetzeko kuantifikazioa zehazteko, lan-agintaritza honek egokitzat jotzen du hezkuntza-etapak bereiztea. Izan ere, une honetan ikastetxeetan nahitaez bete behar diren osasun-gomendioak bete ahal izateko, ikasleen heldutasun-maila hartu behar da kontuan. Adinaren arabera, ikasleek zaintza- eta kontrol-maila handiagoa edo txikiagoa behar dute, eta eman beharreko zainketa integralek intentsitate desberdina izan behar dute.

Are gehiago, hori eragin zuen arrazoia desberdina den arren egungoaren aldean –hau da, orduan grebaren iraupenarengatik izan zen, eta ez gaur egungo osasun larrialdiagatik–, Gizarte Ekimeneko Irakaskuntzaren sektorean 2019ko urtarrilean, martxoan, apirilean, maiatzean, azaroan eta abenduan deitutako grebetan erabili zen bereizketa hori, ikasleen adinaren arabera ikasleen heldutasun- eta zaintza-beharretan oinarrituta, eta ezartzen ari ziren gutxieneko zerbitzuak birplanteatzera behartu zuten Lan Agintaritza hau, ikasleen segurtasuna bermatzeko, bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dauden ikastetxeen kasuan. Hori guztia COVID 19aren aurretik emandako 2019ko urtarrilaren 15eko Aginduan jaso zen. Agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian errekurritu zuten (59/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtso arrunta eta haren 62/2019 metatua) eta hark errekurtsoa ezetsi eta aipatutako agindua berretsi zuen. Gerorago, SARS-Cov-2ak eragindako osasun-egoeraren ondorioz, 2020ko irailaren 14ko Aginduan islatu zen berriro, 2020ko irailaren 15erako hezkuntza sektorean deitutako greban. Agindu hori ere errekurritua izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian (925/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtso arrunta) eta hark errekurtsoa ezetsi eta errekurritutako Agindua zuzenbidearen arabera zela adierazi zuen martxoaren 20ko 93/2021 epaian.

Hori horrela, Haur Hezkuntzako 1. zikloan (0 eta 2 urte bitartekoak), 2. zikloan (3 eta 5 urte bitartekoak) eta Lehen Hezkuntzan (6 eta 11 urte bitartekoak), beharrezkotzat jotzen da gutxieneko zerbitzu horiek areagotzea, aipatutako etapa horien barruan ikastetxe bakoitzean matrikulatutako ikasle-kopuruaren arabera, ikasleen segurtasuna eta osasuna bermatu ahal izateko.

Hezkuntza bereziko ikastetxeei dagokienez, kontuan izan behar da beren egoera bereziengatik, desgaitasuna duten pertsonengatik eta mendekotasun maila altuengatik laguntza orokorra behar duten ikasleak joaten direla, eta laguntza horiek oso banakako arreta eta baliabide trinkoak eta jarraituak behar dituztela. Horregatik, zentro horiei dagokien babes-funtzioa babesteko, beharrezkotzat jotzen da gela horietan egon ohi diren langileen %75 egotea.

Jangela-zerbitzuari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da, aurreko deialdietan emandako Oinarrizko Zerbitzuen Aginduetan ohikoa den bezala, hezkuntza-etaparen arabera aldeak ezartzea. Beraz, jantoki-zerbitzua bermatuko da, erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuz, bai zentroetan bertan, bai zentroek azpikontrataturako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da haien banaketa. Horretarako, egokitzat jotzen da greba honetan gutxieneko zerbitzu gisa sukaldeko langileen eta begiraleen

%10 ezartzea haur-hezkuntzako etaparako, eta ehuneko hori handitu egingo da hezkuntza-premia bereziak dituzten lehen zikloko ikasleen kasuan.

Garbiketa-zerbitzuari dagokionez, ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko protokolo orokorrak ezartzen du *pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak garbitzea eta desinfektatzea ohikoa izan behar dela kutsatzeak saihesteko, eta, beraz, higie- eta garbiketa-neurriak areagotzea ezinbestekoa dela.*

Gainera, EAEko ikastetxeetan COVID-19arekiko esposizio-arriskuari buruzko lanarriskuen prebentzio-neurrien dokumentuan ondorioztatzen denez, garbiketa-protokolo bat ezarri behar da ikastetxeetako kontingentzia-planak egiteko, zeinak honako ohar hauek jaso beharko baititu:

1. *Erabiltzen diren gelak garbitzea, gutxienez egunean behin, eta behar duten espazioetan garbiketa areagotzea, erabileraren intentsitatearen arabera; adibidez, komunak egunean hiru aldiz garbituko dira gutxienez. Hor bildurik dago mahai, aulki, tresna eta lan-ekipoen gainazalak garbitzea.*
2. *Arreta berezia eskainiko zaie erabilera arrunteko eremuei eta ukipen-azalera ohikoenei, hala nola ate-helduleku, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, esekigailu eta antzeko ezaugarriak dituzten beste elementu batzuei.*
3. *Garbiketa-neurriak, hala badagokio, langileen eremu pribatuetara ere zabalduko dira; esaterako, atsedeen-eremuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara, sukaldeetara (baxera, mahai-tresna eta edalontzi guztiak ontzi-garbigailuan garbituko dira, baita erabili ez dena ere, ikasleen eskuekin kontaktuan egon dela iritzi gero).*
4. *Halaber, txanda-aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, partekatutako lanpostuak garbitu eta desinfektatuko dira, eta garbiketa-produktuari jarduten utziko zaio, arreta berezia jarriz altzariei eta eskuztatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituztenean. Partekatutako ordenagailu bat erabiltzen amaitzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala garbituko da gel desinfektatzailez.*
5. *Fisioterapeutek, garbiketako arduradunek, arropa eta pixoihalak aldatzen dituztenek eta, oro har, ikasleei laguntza ematen dieten langileek erabilitako eremu osoa garbitzen saiatu beharko dute erabili ondoren.*
6. *Desinfektatzaileak baliatuko dira, hala nola lixiba-diluzio prestatu berriak (1:50), edo osasun-agintariek baimendu eta erregistratutako birusen aurkako efektudun desinfektatzaileetako edozein. Produktu horiek erabiltzean, etiketaren eta segurtasun-fitxaren oharra errespetatuko dira beti.*
7. *Garbiketa bakoitzaren ondoren, modu seguruan bota behar dira erabilitako materialak eta erabilitako babes-ekipamenduak, eta ondoren eskuak garbitu.*
8. *Kontu handia hartu behar da paperontzien garbiketarekin, garbi eta materialak bilduta gera daitezkeen eta ez dadin gertatu halabeharrezko kontakturik.*

Neurri horiek betetzeko, garbiketa-zerbitzuan aritzen diren ohiko langileen ehuneko jakin bat ezarri behar da. Egungo egoera ikusita, ezinbestekoa da ohiko langileen %100 bertaratzea.

Azkenik, unibertsitate-irakaskuntzari dagokionez, jurisprudenziaren bidez bereizi denaren arabera, kontuan hartu behar da deialdiaren data aldeztatik finkatutako eta ikasleen egutegi akademikoetan argitaratutako probak eta azterketak ebaluatzeko eta egiteko aldiaren sar daitekeela. Kasu horietan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko beharra ez da egongo jardura akademikoaren, irakaskuntzakoaren eta ikerkuntzakoaren edukiak zehaztean, ez eta horiek nola garatu beharko diren zehaztean ere, hezkuntzarako eskubidea ez kaltetzeko eten edo geldiarazi ezin diren jardura-moten arabera baizik, ikasturte amaierako ebaluazio-proben kasuan bezala. Horrela ezarri du jurisprudentziak, besteak beste, Auzitegi Gorenaren urriaren 16ko epaiak.

Oinarri berak ditu Hizkuntza Eskola Ofizialetan amaierako ebaluazio-maila duten eta egutegi akademikoan planifikatuta dauden azterketak egingo direla bermatzeko ezarritako gutxieneko zerbitzuak.

Garraio-sektorea

Askatasunez zirkulatzeko eskubidea (Konstituzioaren 19. artikulua) oinarria da oinarrizko beste zenbait eskubide baliatzeko, hala nola: bizia, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko beharrezkoa den laguntza jasotzeko eskubidea edo hezkuntza-jarduerak edo lana bera garatzeko zentroetara joatekoa. Izan ere, halako eskubideak ezin dira babesik gabe utzi, greba eskubidea baliatzea zilegi bada ere. Arrazoi horrengatik, aintzat hartu behar da bidaiarien garraioa gizartearentzat ezinbesteko zerbitzua dela, zerbitzu horiek guztiz gelditzeak leku batetik bestera mugitzeko erabateko ezintasuna eragingo lukeelako herritar askorentzat, eta horrek adierazitako zirkulazio-askatasunerako eskubidea urratuko luke.

Horrez gain, kontuan hartu behar da bidaiarien garraio-linea batzuk bakarrak direla eta bestelako garraio-aukerarik ez dutela, hala nola Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen 72. artikuluan xedaturikoaren arabera ezarritakoak. Halaber, kontuan hartu behar da linea horien erabiltzailearen profila honako hau dela: ibilgailu partikularrik ez duen pertsona, adineko pertsona edo desgaitasuna duena, edo zonalde isolatuetan bizi dena eta bestelako garraio bideetara iristeko baliabide gutxi dituen.

Bestalde, herri-administrazioek bidaiak egiteko garraio publikoaren erabilera sustatu dute herritarren artean, horretarako sektorea baliabide berriekin hornituz (metroa, tranbia, eta abar) eta jada ezarritako baliabideen (trena eta autobusa, nagusiki) lineak eta zerbitzuak sustatuz, horrela garapen egokiagoa eta jasangarriagoa lortzeko, eta hiriarteko trafikoaren kolapsoa saihesteko, batez ere eguneko trafikoaren kasuan, aukera bakarra garraio bide pribatuaren erabilera izan ez zedin. Jardura horri esker, zerbitzu publiko horiek erabiltzeko eskaria nabarmen handitu da.

Zirkunstantzia horrek, beste faktore batzuekin batera, ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak %30ean finkatzea dakar. Hona hemen faktore horietako batzuk: hiru Lurralde

Historikoetako hiriburuen eta udalerrri mugakideen (horiek guztiak biztanle askorekin) arteko komunikazioa bermatzea, udalerrri mugakideen arteko lotura modu eskusiboan eta lanerako, hezkuntzarako, osasunerako eta abarrerako elkarrekiko mendekotasun sozioekonomiko handiarekin, eta bidaiarien garraio-zerbitzu edo garraio-linea batzuk herritarren bidaietarako ezinbestekoak edo bakarrak izatea –bestelako aukerarik ez izateagatik, edo kudeatzen dituen beste garraio-bide batzuekiko aukera izateagatik–. Era berean, ezinbestekotzat jo behar dira garraio-bideen koordinazioko eta kontrol-zerbitzuak, horien segurtasun-arloko zereginak, instalazioenak nahiz bertan dauden pertsonenak eta larrialdi-egoeretan jarduteak greba-egoera batean bermatu behar diren oinarritzko eskubideekin lotura dutelako. Zerbitzu horiek gutxieneko langile kopuru batekin eman beharko dira.

Era berean, garraio-bideetako koordinazio- eta kontrol-zerbitzuak funtsezkotzat jo behar dira; izan ere, segurtasunarekin lotutako lana, bai instalazioena, bai bertan dauden pertsonena, eta larrialdi-egoeretan jardutearena, greba-egoera baten aurrean babestu beharreko oinarritzko eskubideekin lotuta dago. Zerbitzu horiek langile kopuru jakin batekin eman beharko dira.

Horretaz aparte, greba hasi orduko zenbait zerbitzu hasita egongo dira, eta horrek – gutxieneko zerbitzurik jarri ezean– zerbitzu horiek finkatutako orduan berehala geldiaraztea ekarriko luke, eta bukatu gabe utziko lieke beren ibilbidea une horretan zerbitzuok erabiltzen ari direnei. Halaber, lanuztea bukatzen denean, hau da, zerbitzua berrabiarazterakoan, aipatutako geldiarazte horrek zailago bihurtuko luke garraio-bideen erritmoak eta maiztasunak berreskuratzea eta horrek, era berean, grebaren eraginak deituta dagoen denbora-mugatik harago luzatzea ekar lezake.

Energia elektrikoa, gasa eta ura.

Energia elektrikoa eta gasa produzitu eta banatzen eta ura arazten eta banatzen duten enpresak eta erakundeak ezinbestekotzat jo behar dira, oinarritzko eta/edo premia larriko ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten azpiegiturei eta produkzio-prozesuei ekarpen erabakigarria egiten dietelako. Bada, enpresa horietako langileek greba eginez gero, baliteke pertsonen osasunari ezin konponduzko kalteak eragitea; hortaz, hain beharrezkoak ditugun ondasun horien hornikuntzak bermatuta egon beharko du grebaldian.

Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB)

Ente publiko honek eskaintzen duen zerbitzuak, ente publiko hori sortzeari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 legearen arabera, ezinbesteko zerbitzu publikoaren izaera du. Aztergai dugun kasuan, eta EITBk edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa komunikatu eta emititzeko funtsezko eskubideen erabilera azpimarratzen duenez, Konstituzioaren 20.1.d) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eduki instituzionala, politikoa edo soziala duten albistegiak ez badira emititzen, herritarren eskubide eta askatasunen erabilera mugatuko litzateke.

Herritarrekiko harremanak.

Herritarren eta administrazioaren arteko harremanei dagokienez, kontuan izan behar da horietako asko araututa daudela. Arau horietan ezarritako epeak oso garrantzizkoak dira herritarrek euren interesak defenda ditzaten, baita benetako babes judizialerako eskubidea ere. Hain zuzen ere, idazki, dokumentu nahiz espediente jakin bat administrazioan dagokion epearen barruan sartu dela egiaztatzen dute administrazioaren erregistroek, zeren, bestela, gerta baitaiteke herritarren eskubide batzuk urratzea. Horrela, bada, autonomia-erkidegoan egun batean zehar ordu-tarte zehatz batzuetarako edo egun oso baterako greba orokorraren deialdia egiteak ez du esan nahi egun hori edo ordu horiek baliogabeak direnik. Hortaz, administrazio publikoak gutxienez dokumentuak erregistratzeko zerbitzua irekita eduki beharko du, herritarren oinarrizko eskubideak bete ahal izateko.

Ildo beretik, kontuan izan behar da EJIE, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak bere informatika-zerbitzuak ematen dizkiela Eusko Jaurlaritzari eta erakunde guztiei, eta zerbitzu horietako batzuk ezinbestekoak direla. Horrela, bada, Ustiapen Zerbitzua ezinbestekotzat jotzen da haren jarduerak Jaurlaritzaren informazio-sistemak erabilgarri daudela bermatzen duelako, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan, eta erabiltzaileei aukera ematen dielako edozein lekutatik edozein sistema informatikotara sartzeko. Horrez gain, azpiegituren eta aplikatiboen etengabeko monitorizazio-lanak egiten ditu. Gutxienerako zerbitzuak ezarri ezean, zerbitzu orokorra galdu liteke, eta horren ondorioz ezinezkoa izan liteke bai informatika-tresnak bai datu-biltegiak erabiltzea, baita PLATEA plataforma ere, zeinaren bidez bideratzen baitira gobernuak Interneten duen presentzia, izapidetze elektronikoa, dokumentuen kudeaketa eta gobernuaren eta kanpo-erakundearen arteko integrazio-prozesuak. Halaber, gorabeheraren bat izanez gero, informatika-sistema batek bermatzen du gobernuaren eraikinetarako sarbidea, bai funtzionarioena bai herritarrena; eta gai horri buruz azpimarratu behar da sistemak huts eginez gero, erregistroerako ezarritako gutxienerako zerbitzuak eraginik gabe gera litezkeela, aurreko paragrafoan azaldu den bezala. Azkenik, ezinbestekoa da, jakina, babeskopia egitea, egunean zehar landutako informazioa geroago inolako galerarik gabe berreskuratu ahal izateko.

Justizia-Administrazioa.

Jurisdikzio-organoen jarduerak, konstituzioaren lehen mailakoak izaki, bermatu beharrekoak diren oinarrizko eskubide garrantzitsu jakin batzuei eragiten die. Horren ondorioz, jarduera hori ezinbestekotzat jo behar da greba-kasuetan, eta ez bakarrik oinarrizko zenbait eskubideri –askatasun-eskubideari adibidez– eragiten dielako bereziki, baita ere jurisdikziora biltzea eta benetako babes judiziala lortzea ere kolokan jar dezakeelako, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko urriaren 25eko 771. zenbakiko epaiak ezarri duen bezala.

2006ko urriaren 25eko epai horrek greba izanez gero ezarri beharreko gutxienerako zerbitzuak –langile-hornidurarekin zerikusia dutenak barnean direla– zehazteko irizpideak finkatzen ditu. Besteak beste, honako hauek dira: epaitegietan eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan guardia-eginkizunetan diharduten langileen %100 hornitzea;

dokumentuak jaso eta erregistratzea; premiazkoztat jotako jardunak edo Legeak alde zuzenetik ezarritako epemuga egun horretan dutenak, baldin eta ez-betetze horrek eskubideak galdu edo kaltetzea ekar badezake berekin; kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriei eragiten dietenak, baldin eta, ondorengo egunetarako utziz gero, eraginkortasuna gal badezakete edo norbait espetxetik ateratzeko eguna atzera badezakete; eta greba-egunerako ezarritako epaiketa, agerraldi eta antzekoak, baldin eta, etenez gero, kalte larriak eragin baditzakete, ondorenean egiteko zailtasunak direla-eta, edota etenaldi horrek eragin litzakeen neurrigabeko kalteak direla-eta.

Gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan, kontuan hartu behar dira, halaber, barneratze-neurriak betearazten diharduten gazte justiziako zentroak; halakoetan, jaiegun bateko langileek jardun behar dute.

Arlo horretan, bereziki aipagarria da Zumarragako Ibaiondo zentroa. Hezkuntza-zentro hori, izan ere, jurisdikzio-bidean hartutako erabaki baten bidez eskubideak murriztuta dituzten adingabeei zuzenduta dago, eta, horregatik, tratamenduak banakakoa izan behar du. Dituen ezaugarri bereziengatik, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu behar ditu, eskaintzen duen ezinbesteko hezkuntza- eta egoitza-zerbitzu publikoa mantentzen dela ziurtatzeko, bai eta instalazioen, langileen eta adingabeen euren segurtasuna ere. Era berean, egoiliarren bizitzeko eskubidea eta osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta osotasuna izateko eskubidea ziurtatu behar dira.

Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, oinarritzko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eksklusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Hori dela-eta, Lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua aipatzen duen prozedura bideratu da.

Deitutakoaren antzeko iraupena duten greba orokorren kasuetan, sailburuaren aginduak eman dira, hala nola, 2017ko martxoaren 7koa, 2018ko otsailaren 27koa – martxoaren 7ko aginduak aldatua –, 2019ko otsailaren 28koa, 2019ko irailaren 24koa eta 2020ko urtarrilaren 20koa. Bestalde, COVIDek eragindako pandemian, aginduak eman dira hezkuntza-sektorean, hirugarren adinekoentzako egoitzetan, zaintza-zentroetan eta OSAKIDETZAn, deialdi honen eraginpean daudenak: 2020ko irailaren 14koa (hezkuntza sektorean); 2020ko urriaren 2koa, 2020ko abenduaren 4koa eta 2020ko urriaren 22koa, 2021ko otsailaren 22koa eta 2021ko maiatzaren 18koa (Gipuzkoako egoitza pribatuetan); 2020ko urriaren 6koa, 2020ko abenduaren 23koa, 2021ko otsailaren 15koa, eta 2021ko martxoaren 31koa, 2021ko maiatzaren 10koa, 2021ko maiatzaren 31koa eta 2021ko

ekainaren 7koa (Arabako egoitza pribatuak eta etxebizitza komunitarioetan); 2020ko azaroaren 13koa, 2021ko urtarrilaren 22koa eta 2021ko otsailaren 26koa (zaintza sektorean); 2020ko urriaren 26koa eta 2021ko urtarrilaren 26koa (OSAKIDETZA). Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan 2021eko apirilaren 22rako greba-deialdiaren harira emandako 2021eko apirilaren 20ko Aginduan xedatutakoa ere kontuan hartu behar da.

Agindu horiek ez dira aurrekari lotesleak, baina, aplikatzerakoan izandako gorabeherak eta hutsuneak kontuan hartuta, aurrekari garrantzitsuak dira.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Adminiztrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jarduarloak finkatzen dituena) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena dagokio, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza jasota, honako hau,

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA. – Ekainaren 18an, 00.00etatik 24.00etara greba eskubidea egikaritzera deituak izan diren Estatuko Administrazio Orokorreko, Autonomia-Erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako Administrazioetako, Toki-erakundeetako Administrazioetako, Erakunde Publikoetako, Agentzietako eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeetako, edozein Administrazio publikori lotutakoak edo haren mendekoak, eta Unibertsitate Publikoko langile, funtzionario, estatutupeko eta lan-kontratuko langile guztien greba eskubidea hurrengo paragrafoetan ezartzen diren funtsezko prestazioak eta ondoriozko gutxieneko zerbitzuak mantentzearen baldintzapean egongo da:

BIGARRENA. - Osasun-sektorea

OSAKIDETZAK-Osasun-Zerbitzu Publikoak eta osasun-zerbitzuak emateaz arduratzen diren enpresa eta erakunde publikoek honako zerbitzu hauek bermatu beharko dituzte:

1. Ospitaleetan, larunbateko ohiko langileekin (alta medikoak eman ahal izango dira), larrialdiak, sukaldea, janari-banaketa eta gaixoak behar bezala zaintzea.

Halaber, aurrez zehaztu diren eta geroraezinak diren tratamendu onkologikoak eta dialisi-prozesuak mantenduko dira. Era berean, koronabirusaren proba diagnostikoak egiteko ezarritako baliabideei mantenduko dira.

Osasun-gomendioei eta laneko eta/edo osasuneko arriskuak prebenitzeko xedapenei eta protokoloiei jarraiki, pertsonen segurtasunerako eta osasunerako arrisku larria eta berehalakoa eragiten duten eremuetan garbituko dira ospitaleko zentu horiek. Garbiketa hori, lan hori egiten duten ohiko langileen % 100ek egingo du, langileen eta pazienteen osasuna bermatzeko.

2. Lehen mailako arretaren eremuan, greba-egunean lan egin behar duen pertsonala arituko da, baina larunbatetako ohiko ordutegia eta zerbitzuak mantenduz; langile kopurua ere larunbatetako izango da garbiketa zerbitzua izan ezik. Garbiketako gutxieneko zerbitzuak plantillaren % 100 izango dira.
3. Larrialdi-zerbitzuen eta Etengabeko Arretako Guneen %100.
4. Arabako ESiko, Donostialdeako ESiko, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko, Bilbo-Basurtuko ESiko, Uribeko ESiko, Debabarrenako ESiko, Bidasoako ESiko eta Tolosako ESiko Call Center zerbitzuetan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50 mantenduko da.
5. Infekzio aktiboaren test diagnostikoaren laginak ateratzeko zerbitzu/unitateetan, osasun-zentroetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan berariaz horretarako gaitutako lekuetan, langileen % 100.
6. Kasuak eta kontaktuak zaintzeko programaren sareko ekipoetan, herritarrei kutsadurei aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzko informazioa emateko, miaketa-lanak egiteko eta kontaktuen jarraipena egiteko, eta birusaren hedapena mugatzeko behar diren neurriak hartzeko, langileen % 100.
7. Laneko Arriskuen Prebentzioko eta Prebentzioko Medikuntzako zerbitzuetan, herritarrei berehalako arreta eta informazioa emateko kutsadurei aurre egiteko hartu behar dituzten neurriei buruz, kontaktuen jarraipena eta jarraipena egiteko, eta baztangaren hedapena mugatzeko neurriak hartzeko, greba-egun bakoitzean lan egitea dagokien langileen % 100.
8. SARS-Cov-2ren aurkako txertaketa-ekipoetan, bai osasun-zentroetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan horientzat berariaz prestatutako lekuetan, langileen % 100.

HIRUGARRENA.- Administrazio publikoetako bide-segurtasuneko zerbitzuek eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzuek honako hauek mantenduko dituzte:

1.- SOS-DEIAK 1-1-2 zerbitzuen %100, txanda bakoitzean zerbitzu horretan egon ohi diren langileek emanda.

2.- Gainerako zerbitzuak (larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako zerbitzuak, suhiltzaileak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentzea –neguko bide-

plana barne– eta urtegi, ibai eta mendietako larrialdi-zerbitzua, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa eta abar) urte-sasoi honetako jaiegun batean izan ohi dituzten langileekin egingo dira.

Segurtasun Sailaren komunikazio- eta informatika-arloan, operazio- eta monitorizazio- teknikari bat arituko da txandako.

LAUGARRENA. - Gizarte-zerbitzuak.

1.- Gutxienez jotzen diren zuzeneko arretako zerbitzuak ezinbestean emango dira eguneko zentroetan, hirugarren adineko pertsonentzako egoitzetan, adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan, hezkuntza bereziko zentroetan eta mendetasun edo desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko beste zentro eta zerbitzu batzuetan, egoiliarren beharrezko kontuan hartu eta haien bizitza eta osasuna bermatu daitezzen. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarren ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higie pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Orobat, honako hauetan ematen diren gomendioak bete behar dira: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak idatzi dituen Zentro soziosanitarioetan COVID-19 zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloan (irailaren 22koan) eta Egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurrien Instrukzio Teknikoan (IT-01) ezartzen diren gomendioak, eta egoitza bakoitzak aurrekoak betetze aldera prestatzen dituen Kontingentzia-planetan ezartzen direnak. Era berean, arreta zuzeneko oinarrizko zerbitzuak ezarri dira gutxienezko modura.

2.- Jarraian aipatzen diren langileek ondoren zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

2.1. Egoitzetako gerokultoreak

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean.

Txanda guztietan, zuzeneko arreta gisa konfiguratu ohi diren zereginak egingo dira, bai eta osasun-agintarien prebentzio-gomendioak betetzeko berezkoak direnak ere, laugarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

2.2. Eguneko zentroko gerokultoreak

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, zuzeneko arreta gisa konfiguratu ohi diren zereginak egingo dira, bai eta osasun-agintarien prebentzio-gomendioak betetzeko berezkoak direnak ere, laugarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraio bideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.3. Etxebizitza komunitarioko gerokultoreak

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen % 60 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko da. Gaueko txandan, gerokultoreen edo antzekoen % 100ek emango du zerbitzua.

Txanda guztietan, zuzeneko arreta gisa konfiguratu ohi diren zereginak egingo dira, bai eta osasun-agintarien prebentzio-gomendioak betetzeko berezkoak direnak ere, laugarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

2.4. Osasun-langileak

OLT/EUD langileen % 100ek egingo du lan, ohiko zereginak % 100ean betetzeko eta osasun-agintariak egin dituzten prebentzio-gomendioak betetzeko, laugarren ebazpen-zatiko lehen paragrafoan ezartzen dena betez.

2.5. Sukaldeko langileak

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.6. Garbitzaileak.

Langileen % 100ek lan egingo du. Pertsonen segurtasun edo osasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen eremuetan egingo da garbiketa. Horretarako, erreferentzia-irizpideak izango dira behin eta berriz aipatutako osasun-gomendioak, bai eta Laneko eta/edo Osasun Arriskuen Prebentzioari buruzko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Horrela, zentro osoaren garbiketa sakona bermatu behar da, desinfekzioa barne, erabilera komuneko eta ohiko joan-etorriko eremuetan garbitasuna muturreraino eramanez, baita ohiko kontaktu-azalerak ere, hala nola barandak eta eskubandak, botoiak, ateen heldulekuak, etengailuak, mahaiak, eskailerak, igogailuak, txorrotak, teklatuak, telefonoak, tabletak, gurpil-aulkiak eta makuluak, etab., eta gutxienez txanda bakoitzean behin.

2.7. Ikuztegiko langileak.

Zerbitzu hori zeregin horretarako erabili ohi den lanaldiaren % 90ean emango da. Garbitegi-zerbitzuak egoiliarren barruko arropa eta arropa laua garbitu eta lehortuko ditu: izarak, burkoak eta eskuoihalak.

2.8. Mantentze-lanetako langileak.

Jaiegunetan egoten den langile kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

2.9 Harrera-atezaindegiko langileak:

Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da txanda bakoitzean, eta berau arduratuko da bisitak erregistratzeaz eta bisitarien tenperatura hartzeaz. Kontrol horretan sartuko dira bai erabiltzaileak, bai bisitak, osasun-gomendioetan ezarritako mugak bete daitezten.

3.- Etxez etxeko laguntzaren sektorean honako zerbitzu hauek emango dira; alabaina, II. eta III. mendekotasun-gradua duten pertsonen bakarrik:

- 3.1 Janari-zerbitzua emango da. Ahal dela, aurretik egindako edo aurretik egiten diren elikagaietara joko da.
- 3.2 Zerbitzu hauek emango dira: eguneroko higiene pertsonalean lagunduko da, bai eta komuna erabiltzen ere, eta, hala badagokio, maskuri- eta heste-hustuketa egiten; jaikitzen, oheratzen eta janitzen lagunduko da, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratuko da.
- 3.3 Hitzordua aurretik ezarri bada eta atzeratu ezin badaiteke, osasun-zentroetara joaten lagunduko zaie erabiltzaileei.
- 3.4 Halaber, eguneko zentroetara joaten lagunduko zaie.
- 3.5 Ohean dauden pertsonen dagokienez, behar diren jarrera-aldaketak egingo zaizkie.

4.- Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitzetan eta etxebizitza babestuak, bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako egoitzetan eta pisu babestuak, adingabeentzako hezkuntza-zentroetan, etxebizitza komunitarioetan, eta esku-hartze sozialeko zentroetan, jaiegun bati dagozkion zerbitzuak mantenduko dira.

BOSGARRENA. - Hezkuntza-sektorea.

Irakaskuntza publiko zentroetan, ondoren adieraziko diren zerbitzuak emango dira, honako langile hauekin:

1. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko zentro publikotan: zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro publiko eta lotutako eraikin bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona bat; mendekoen plantillako pertsona bat goizeko txandan eta beste bat arratsaldeko txandan; eta, baldin badago, COVIDeko koordinatzailea.

2. Haurreskolak Partzuergoa eta udal titulartasuneko haurtzaindegiak: zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro eta lotutako eraikin bakoitzeko: koordinatzaile 1, edo hura ordezkatzeko duen pertsona 1, eta, baldin badago, COVIDeko koordinatzailea.
3. Babes-funtzioa eta osasuna babesteko, 1 eta 2 paragrafoetan ezarritako zerbitzuei honako hauek gehituko zaizkie:

- a) Irakasle bat hezkuntza-etapa bakoitzeko (Haur Hezkuntza, Haurreskolak, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa).
- b) Haur Hezkuntzako etapetan, 1. ziklokoetan zein 2. ziklokoetan (Haurreskolak barne) eta Lehen Hezkuntzako etapetan, etapa bakoitzean matrikulatutako 100 ikasletik aurrera, 2 irakasle gehituko dira etapa bakoitzean. 200 ikasletik aurrera, beste bi irakasle, eta horrela hurrenez hurren 100 ikasleko.
- c) Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan edo hezkuntza bereziko gela egonkorretan, ikasgeletan ohiko diren langileen % 75.

4. Jantoki-zerbitzua bermatuko da, zerbitzu hori grebara deitutako langileekin ematen den ikastetxeetan, erraz prestatzen diren elikagaiak prestatuz. Aurreko eginkizunak sukaldeko langileen %10ek beteko dituzte. %10a pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarritako gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

Ikasleei jaten emateko, erabili eta botatzeko materiala erabili beharko da eta jantokia garbitzeko garbiketaz-zerbitzuari buruzko 8.atalean ezarritakoa bete beharko da.

Ikasleei laguntzeko eta jangelak irekita edukitzeko, langile horiek arduratzen diren bitartean, monitoreen eta/edo monitoreen portzentaje hau ezarri da, hezkuntzako ziklo eta etapen arabera:

- 4.1. Haur Hezkuntzako ikasleak (1. zikloa: 2 eta 3 urte):

- Monitore bat 2 urteko geletako 9 mahaikide bakoitzeko
- Monitore bat 3 urteko geletako 15 mahaikide bakoitzeko

- 4.2. Haur Hezkuntzako ikasleak (2. zikloa: 4 eta 5 urte):

- Ikastetxeko begiraleen %10. %10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarritako gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

- 4.3. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak: haien elikadura beharrak asetzeko behar den gutxienerako monitore kopurua.

5. Euskal Herriko Unibertsitatea:

- a) Zentroetarako eta horiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko: zentro bakoitzeko eta/edo lotutako eraikin bakoitzeko, atezainen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako, eta, baldin badago, COVIDeko koordinatzailea.

- b) Egutegi akademikoan planifikatutako azterketak –azken ebaluazioaren maila dutenak– egiteko: azterketa egiteaz arduratuko den irakasle 1.
6. MUSIKENE Goi Mailako Musika Ikastegia eta udal-titulartasuneko musika-eskolak: zentroetarako eta haiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko, atezainen plantillako pertsona 1, lotutako hiru eraikinetako bakoitzerako eta goizeko eta arratsaldeko txanda bakoitzerako.
7. Hizkuntza Eskola Ofizialak:
- a) Zentroetarako eta horiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko: zentro bakoitzeko eta/edo lotutako eraikin bakoitzeko, atezainen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
- b) Egutegi akademikoan planifikatutako azterketak –azken ebaluazioaren maila dutenak– egiteko: azterketa egiteaz arduratuko den irakasle 1.
8. Garbiketa- zerbitzua ematen duten ikastetxeak zerbitzu hori grebara deitutako langileekin egingo dutela bermatzen da, ohiko garbiketa eta ikastetxeetako Kontingentzia Planetan jasotako gomendioak betetzea barne, argitaratutako osasun-gomendioei jarraiki. Lan horiek, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen %100ek egingo dituzte, eta haien lanaldia ez da inoiz ohiko lanaldia baino luzeagoa izango.

SEIGARRENA. - Garraioa.

1. Autobusek, trenak, tranbiek, funikularrek eta ibaiko garraioek greba-deialdian zehaztutako ordu-tarteetan programatuta dituzten ohiko zerbitzuen % 30 mantenduko dute. Ehuneko hori banatzerakoan, lehentasuna emango zaie ordezkiko garraio-zerbitzurik ez duten edo osasun-zentroetara daramaten lineei. Halaber, estaldura berezia emango zaie lantokietako sarrera- eta irteera-ordutegiei. Greba hasi aurreko orduetan hasten diren zerbitzuek, horrelakorik egonez gero, ohiko ibilbidea amaitu arte jarraitu beharko dute. Era berean, aginteko, koordinazioko, kontroleko eta segurtasuneko zerbitzuak mantendu behar dira garraiobideetan, zerbitzu horietako lanpostu bakoitzeko eta txanda bakoitzeko pertsona batekin.

2. Errepideen mantentze-zerbitzuak jaiegun bati dagozkion langile eta zerbitzuekin lan egingo du.

ZAZPIGARRENA. – Energia elektrikoa, gasa eta ura.

Energia elektrikoa produzitu eta hornitzeaz, gasa produzitu eta hornitzeaz eta ura araztu eta hornitzeaz arduratzen diren enpresek eta organismoek zerbitzua bermatuko dute, jaiegun bati dagokion langile-kopuruarekin.

ZORTZIGARRENA. - Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB)

Enpresan, bermatu beharreko zerbitzuak soilik eguneroko albistegiak dira, haien ohiko ordutegian.

BEDERATZIGARRENA. - Herritarrekiko harremanak

1.- Hiru lurralde historikoetako hiriburuetan dokumentuak erregistratzeko zerbitzuek ere zerbitzua eman beharko dute, ZUZENEAN zerbitzuaren bidez, egoitza hauetan: Araba: Ramiro de Maeztu kalea 10, Vitoria-Gasteiz; eta Bizkaian eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzak dituen lurralde-ordezkaritzetan: Kale Nagusia 85, Bilbao, eta Andia kalea 13, Donostia. Gutxienez langile batek lan egingo du egoitzako eta txandako.

2.- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, EJE. Jaiegunetako pertsonala egongo da, hau da, operadore bat txandako.

HAMARGARRENA. - Justizia Administrazioa.

Honako zerbitzu hauek mantenduko dira, agindu honetako **Eranskinean** zehazten diren langileekin:

1. Guardia Zerbitzuaren berezko jardunak.
2. Dokumentuak jaso eta erregistratzea.
3. Urgentziako gaiak organo judizialen artean banatzea.
4. Legeak aldez aurretik ezarritako epea amaitzen zaien jardun guztiak, baldin eta ez-betetzeak berekin ekar badezake eskubideak galtzea edo kaltetzea.
5. Ondorengo egunetarako utziz gero, eraginkortasuna gal dezaketen edo norbait espetxetik ateratzeko eguna atzeratzea ekar dezaketen kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriak.
6. Instrukzioko edo prozesua bultzatzeko jarduera, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako inguruabarretakoren bat gertatzen bada.
7. 2021ko apirilaren 22erako deitutako egintzak (epaiketak, agerraldiak eta abar), baldin eta etenez gero kalte larriak ekar baditzaizkete berekin, ondorenean egiteko zailtasunak direla-eta edo etenaldiak eragin litzakeen neurrigabeko kalteak direla-eta; besteak beste, honako hauek:
 - a. Zigor arloan, epaiketak edo apelazio-ikustaldiak, baldin eta tartean askatasunik gabeko pertsonak badaude edo urtebetetik gorako espetxealdia eskatzen bada.
 - b. Arlo zibilean, hartzekodunen batzarrak konkurtso-prozeduretan, eta oso behin-

- behineko neurriak.
- c. Lan-arloan, kaleratzeengatiko epaiketak.
 - d. Arlo guztietan, oinarritzko eskubideen tutoretza-prozesuetan deitutako egintzak, baldin eta etenaldiak azken ebazpena geroratzen badu.
8. Epea amaitzen zaien lurperatze-lizentziak eta erregistro-inskripzioak.
9. Itsasontzi-matxurekin, itsas protestekin eta errekesitoria-pertsonen egoera legeztatzearekin zerikusia duten jarduerak.
10. Pertsonak barneratzea.
11. Gazte-justiziako hezkuntza-zentroak:
- a. Zumarragako Ibaiondo hezkuntza-zentroan, ostiraletako jaiegunei dagozkien langileak mantenduko dira.
 - b. Barneratze-neurriak betearazteko gazte-justiziako gainerako hezkuntza-zentroetan, jaiegun bati dagozkion langileak mantenduko dira.

HAMAIKAGARRENA.- Arestian aipatutako zerbitzuak greba-eskubidea erabiltzen ez duten pertsonak emango dituzte, langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean izan ezik.

Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresetako nahiz administrazio publikoetako zuzendaritzak izendatuko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, Agindu honetan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

Justizia Administrazioan, aurreko apartatuan adierazitako zerbitzuak greba-eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte –langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean izan ezik–, agindu honen eranskinean zehazten den bezala.

Justizia Administrazioaren esparru horretan, letraduei, fiskalburuei edo dagokion erakundeko buruari dagokio ezinbesteko zerbitzuak bete behar dituztenak izendatzea, baita gutxieneko zerbitzuak bete behar dituen funtzionarioak zer kidegotakoa izan behar duen zehaztea ere, halakorik zehaztu ez den kasuetan, dagokion organoaren berezko zereginaren barnean bildutako ezinbesteko zerbitzuak betetz.

HAMABIGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

HAMALAU GARRENA.- Jakinaraz bekie agindu hau grebaren deialdia egin duten erakunde sindikalei eta administrazio publikoei, bete dezaten eta argitara dadila Lana eta Enplegu Sailaren webean denon ezagupenerako.

HAMABOS GARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 17a.

**BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**

**ERANSKINA, 2021EKO EKAINAREN 17KO BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN
ETA ENPLEGU SAILBURUAREN AGINDUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN
BAITA SEKTORE PUBLIKOAN 2021EKO EKAINAREN 18RAKO DEITUTAKO GREBAK
IRAUTEN DUEN BIETARTEAN GIZARTEAREI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO
ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA.**

Justizia Administrazioa

Guardian dauden epaitegietan eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan izan ezik, haietan guardiako zerbitzua egin ohi duten langile guztiek lan egin beharko dute- honako gutxieneko zerbitzu hauek ezartzen dira aipatutako ezinbesteko zerbitzuak emateko:

AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTOA	
Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutoko Zuzendariorde eta Zuzendariordetza	2 auzitegi-mediku eta funtzionario 1 Zuzendariorde eta bakoitzean

FISKALTZAK	
Justizia Auzitegi Nagusiaren Fiskaltza	2 funtzionario
Probintziaren- eta Barakaldoko Lurraldearen- Fiskaltzak	Funtzionario 1 Bulego bakoitzeko

EPAITEGIAK ETA AUZITEGIAK	
Justizia Auzitegi Nagusiko Salak	Funtzionario 1 Gela bakoitzeko
Gobernu idazkaritza	Funtzionario 1
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Probintzia- Auzitegiak	Atal bakoitzeko funtzionario bat
Bizkaiko Probintzia-Auzitegia	Funtzionario 1 erregistroko, banaketako eta zigor-arloko errekurtsioak izapidetzeko Bulegoan
Lehen Auzialdiko Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Erregistro zibila duen Lehen Auzialdiko Epaitegiak eta Erregistro Zibila duen Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak	2 Funtzionario (bat bulego bakoitzean)

Erregistro Zibil Bakar (Bilbao)	2 Funtzionario
Merkataritza-arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Instrukzioko Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Adingabeen Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Zigor-arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 bi Epaitegiko
Donostiako Zigor-arloko 4 zenbakiko Epaitegia eta Bilboko Zigor-arloko 7 zenbakiko Epaitegia	Funtzionario 1
Espetxe Zaintzako Epaitegia	Funtzionario 1
Lan-arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi bakoitzeko
Bilboko Dekanotza	Funtzionario 1 erregistroan eta banaketan
Bilboko Dekanotza	Funtzionario 1 Gobernuaren Bulegoan
Bilboko Dekanotza	KEBZEgoko Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario 1
Bake Epaitegiak	Funtzionario 1 Epaitegi/Elkarte bakoitzeko

ZERBITZU ERKIDE PROZESALAK	
Azpeitiko, Amurrioko eta Balmasedako Zerbitzu Erkide Orokorrak	Funtzionario 1
Barakaldoko, Gasteizeko eta Donostiako Zerbitzu Erkide Orokorrak	Funtzionario 1 sekzio bakoitzeko. KEBZE ataleko pertsonak, Barakaldoren kasuan, laguntza judizialeko kidegokoa izan behar du.
Zerbitzu Erkide Betearazpenkoa	Funtzionario bat Sekzio bakoitzeko
Zerbitzu Erkide Orokor eta Betearazpenkoa	Funtzionario bat Sekzio bakoitzeko